

EHUNGINTZA OSAGARRIAK– Oinarrizko Maila

Hornitzaileen checklista: Ingurumen irizpideak



1. ERANSKINA: PRODUKTUAREN BETEKIZUNAK

Markatu BAI zutabeko laukitxoak, baldin eta derrigorrezko espezifikazio guztiak eta espezifikazio baloragarriak betetzen badituzu.

Derrigorrezko irizpideak betetzen ez badituzu, edota betetzen dituzula egiaztatzeko abalik aurkezten ez baduzu, zure eskaintza ez dugu esleipen prozedurako hurrengo faseetan kontuan hartuko.

Espezifikazio baloragarrien kasuan, espezifikazioak betetzen dituzula egiaztatzeko abalik aurkezten ez baduzu, ez dizugu horri dagokion punturik emango. Puntuazio horrek abantaila gehien dituen eskaintza identifikatzeko balio du.

Irizpideak ezarriak dituzten materialetatik bakarren bat ez badu produktuak, “bai” zutabean zehaztu behar da irizpidea ez dela aplikatzen (e.d.).

Taula hauek bete behar dira baldintza-agirian zehaztutako produktu bakoitzeko:

Marka eta modeloa:		
Materialak: (zerrenda)		
DERRIGORREZKO IRIZPIDEAK	BAI	ABAL MOTA / MEMORIAKO ORRIALDEA
Bidezko Merkataritzari eta Garapenari buruzko Europako Parlamentuaren Ebazpeneko parametroen arabera ekoitzia	<input type="checkbox"/>	1

IRIZPIDE BALORAGARRIAK	PUNTUEN EHUNEKOA ¹	BAI	ABAL MOTA/ MEMORIAKO ORRIALDEA
Nekazaritza ekologikoko zuntz naturalen %		<input type="checkbox"/>	2,3 (Beltxarga zuria eta Europako Etiketa Ekologikoa),4,5
Zuntz birziklatuen %		<input type="checkbox"/>	4,5

¹ Ingurumen alderdietan esleipen irizpideetarako zehaztu denaren arabera.

ARGIBIDEAK

«Abal mota/Memoriako or.» zutabean, ingurumen ziurtagiriak eta ekoetiketak jaso behar dituzu, espezifikazio edo irizpide baloragarri bakoitza betetzen duzula abalatzeko. Dena dela, beste egiaztagiri baliokide batzuk ere onartuko dira, betiere ezarritako irizpideak bete direla argi eta garbi frogatzen bada.

Dokumentuek honako zenbaki hauek dituzte:

1. Bidezko Merkataritza	 
2. Nekazaritza Ekologikoa	      
3. Etiketa Ekologikoa	   
4. Fitxa Teknikoa (ingurumenari dagokionez zuntz onenen portzentajea zenbatekoa den zehaztu behar da)	
5. Azalpena eta/edo adierazpena (ingurumenari dagokionez ehungintza-produktuen zuntz onenen portzentajea zenbatekoa den zehaztu behar da)	

Lizitatuzaileek datu konkrituak eman beharko dituzue, edota irizpide bakoitzerako zer abal aurkeztu duzuen zehaztu; bestela, berriz, eskatutako informazioa memoriaren zer orrialdetan jaso duzuen adierazi.